

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 466/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onespena ematea Arabako Suhiltzaileak erakunde autonomoko Administrazio Kontseiluan aldundiak dituen kideak kendu eta izendatzeari

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauak eratu egin du Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoa (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua).

Erakunde autonomoaren estatutuek, foru arauaren I. eranskinean onartuta, beren 14. artikuluan xedatzen dute suteen prebentzioaren eta itzaltzearen eta salmenduaren arloko eskumena daukan foru saileko diputatua izango dela erakunde autonomoaren lehendakaria.

Gainera, suteen prebentzioaren eta itzaltzearen eta salmenduaren arloko eskumena daukan zuzendaritzako titularra izendatzen da erakunde autonomoaren lehendakariorde jarduteko.

Beste alde batetik, urriaren 29ko 15/1987 Foru Arauak, jarduera ekonomikoen eta foru zerbitzu publiko deszentralizatuen kudeaketari buruzkoak, 13.2 artikuluan (uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauak ematen dion idazkeran) xedatzen du administrazio kontseiluko kideak foru erakunde autonomoari esleitutako zerbitzu publikoarekin loturiko eginkizunak dauzkaten edo zerbitzu hori hobeki emateko koordinatu behar diren Foru Aldundiaren sailek proposatutakoak izango direla.

Helburu horrekin, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren saileko foru diputatua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, Nekazaritza Saileko diputatua eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren saileko foru diputatua.

Proposatutak izan dira Diputatuen Kontseiluari dagokio Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzea organismo eta erakunde publiko zein pribatuetan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 8. artikulua 9. eta 10. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horregatik, Diputatu Nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Organismo Autónomo Arabako Suhiltzaileak-Bomberos de Alava (foru administrazioak partaidetutako Erakundearen Erregistroko 367 agindu zenbakia) Administrazio Kontseilukideak izendatzea:

María Pilar García de Salazar Olano lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren saileko foru diputatua.

Itziar Gonzalo de Zuazo, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuaren saileko foru diputatua.

Eduardo Aguinaco López de Suso, Nekazaritzaren saileko foru diputatua.

Javier Hurtado Dominguez, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren saileko foru diputatua.

Bigarrena: Organismo Autónomo Arabako Suhiltzaileak-Bomberos de Alava (foru administrazioak partaidetutako Erakundearen Erregistroko 367 agindu zenbakia) Administrazio Kontseilukideak kargutik kentzea:

Jose Luis Cimiano Ruiz.

Eduardo Aguinaco López de Suso, Nekazaritza Saileko foru diputatua.

Jesús María López Ubierna.

Nekane Zeberio Ganzarain.

Hirugarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN